

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI,

OSOKO BILKURARAKO PREMIAZKO INTERPELAZIO ZUZENA, UDAL GOBERNUAK CEMENTOS REZOLA ENPRESAKO 6 LANGILEREN AURKAKO EPAIKETAREN AURREAN HARTU BEHARREKO JARRERA DELA ETA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen dion aukera baliatuz, OSOKO BILKURAN PREMIAZ AZTERTZEKO INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkate jaunari, Udal Gobernuak Cementos Rezola enpresako 6 langileren aurkako epaiketaren aurrean hartu beharreko jarrera dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko urtarrilaz geroztik, Cementos Rezola enpresako langileak eta zuzendaritza hitzarmenaren negoziatioetan dabilta. Langileek salatu izan dutenez, ordutik hona lanpostuak suntsitzen ari da enpresa, aldi bakarreko kontratazioak eginez eta azpikontratazioa erabiliz lanpostu horiek betetzeko. Hori dela eta, Enpresa Batzordearen gehiengoak deituta, hainbat greba burutu dituzte. 24 orduko lana izanik enpresa honetan egiten dena, hiru txandatan banaturik, greba orduak txandatan banatu izan dituzte; lanera joateko erabakia zuena nahiz azpikontratak lantokira sartzeko inolako eragozpenik sortu gabe. Hala ere, berriki enpresako zuzendaritzak greba batzordea osatzen duten LAB sindikatuko sei pertsona auzitara sartu ditu, “greba eskubidearen gehiegizko erabilera” argudiatuz. Epaiketa uztailaren 7an izango da.


Egoera honen aurrean, Donostiako Udal Gobernuak ez du inongo keinu edo adierazpenik egin.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

INTERPELAZIOA

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak “hiri-ereduaren bertuteei buruz” (artean langabezia edo lan-baldintzen ingurukoak) hitz egitean Cementos Rezola enpresako langileek bizi duten egoerari buruzko aipamenik egiten? Zer dela eta ez du ezer esan gure hirian, Donostian, gertatzen ari den egoera honen aurrean?
- Zer egingo du Udal Gobernuak Cementos Rezola enpresa batzordeko sei langileren aurka uztailaren 7an egingo den epaiketaren aurrean?

Donostian, 2022ko ekainaren 22an



Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia